

ADSL

Internet azkar eta merke gure etxean


Josu Waliño

Informatikan lizentziatua

Internet-eko konexioetan askotan hitz egin da tarifa finkoa edo "tarifa laua" deritzon horretaz. Oraingoan, teknologia berri batekin batera dator hori: ADSL. Horri esker, Internetera askoz azkarrago konekta daiteke etxeko telefono-linea arrunta erabiliz eta prezio finko bat ordainduta gainera.

TELEFONOZ HITZ EGITEN DENEAN, badira ahotsa transmititzeko erabiltzen ez diren hainbat frekuentzia. Bide hori aztertu zuten 1996an ADSL teknologia garatzen hasi zirenek. Gaur egun, teknologia hau errealitatea da, eta badirudi 2000. urtea ADSLaren urtea izango dela.

ADSL (Asymmetric Digital Subscriber Line) izenaz ezagutzen den horrek gure etxeko telefono-linea arrunta erabiltzen du Internetera konektatzeko. Linea hiru kanaletan banatzen du: batetik ahotsaren komunikaziorako kanal bat uzten du eta, bestetik, abiadura handiko bi kanal prestatzen ditu Interneteko konexiorako: bata datuak jasotzeko eta bestea bidaltzeko. Bi kanalak asimetrikoak dira, hau da, datuak jasotzeko erabiltzen den kanala, bidaltzeko erabiltzen dena baino azkarragoa da.



Asimetriaren arrazoia garbia da: Internetetik jasotzen den informazio-kopurua eta bidaltzen dena ez da berdina izaten, bidaltzen duena baino askoz gehiago jasotzen baitu. ADSL teknologia informazioa azkar jasotzeko beharrea oinarritzen da beraz.

ADSLren ezaugarriak

ADSL teknologiaren bitartez Internetera konektatzeko modem bat erabiltzen bada ere, ez da modem arrunta. Modem analogikoen etxeko telefono-linea osoa hartzen dute Internetera konektatzeko eta konektatuta dauden bitartean ezin da telefonoz hitz egin. Gainera, modem analogikoen gaur egun lortzen duten abia-

durarik azkarrena 56'6 kb/s-koa da. ADSLrekin ordea, Internetera konektatuta dauden bitartean telefonoz hitz egin daiteke, teknologia horrek kanal desberdinak erabiltzen baititu ahotsarentzat eta datuentzat. Abiadurari dagokionez, lehen esan bezala bi abiadura lortuko dira: 8 Mb/s-ko abiadura lor daiteke datuak jasotzean, eta 1 Mb/s-koa datuak bidaltzeko orduan. Dena den, oraingoan Espainian martxan dauden zerbitzuetan 2 Mb/s-ko abiadura lortzen da gehienez, baina abiadura hori ISDNak berak (sare digitala) eskaintzen duena baino azkarragoa eta merkeagoa da.

Horiek ez dira ordea zerbitzu berriak dituen abantaila bakarrak: ADSL bidez konektatzen denean *Always on-line* deritzon konexio-mota erabiltzen da, hau da, ez da deirik egin beharrik Internetera konektatzeko, nahikoa da nabigatzaile edo postarako dagoen programa zabaltzea eta automatikoki konektatuta egongo da. Horrek orain arte izandako oztopo handi bat saihestuko du: Interneteko



ADSL modem-a.

konexioetan sortzen diren arazo gehienak konexioko deian egindako hutsak izaten baitira. Hori gutxi balitz, ADSL erabiliz nahi adina denboraz konekta daiteke Internetera, azken finean, hileko kopuru finko bat ordainduko baita *tarifa finkoa* deritzon sistema izango baita zerbitzu hau ordaintzeko era. Halaber, telefono-fakturaren bereizita agertuko dira telefono arruntaren gastua eta ADSL zerbitzuagatik ordainduko den kuota.

Zer behar da ADSL etxean izateko?

Beti bezala, badirudi sistema berria Windows-erako bakarrik izango dela oraingoz. Orain arte egin diren ADSL modem-ak ez dira Macintosh-erako bateragarriak, baina diotenez laster batean izango dira. Esan bezala, telefono-linea arruntera konektatuko den modem berezi bat behar da horretarako, baina kontuan izan modem horrek ez duela balio faxak bidaltzeko, faxa ahots-linea arruntetik joaten baita.

“Internet asko erabiltzen dutenentzat, aurrerapauso nabarmena izango da”.

ADSL konexioa oraingoz Teleline-k bakarrik eskaintzen du. Oraingoz ez da oso merkea, baina epe luzera, eta bereziki Internet asko erabiltzen dutenentzat, aurrerapauso nabarmena izango da. Teleline-k hiru zerbitzu eskaintzen ditu gaur egun: hauek merkeenak 256 kb/s-ko abiadura ematen du datuak jasotzeko eta hilean 9.300 pta.ko tarifa finkoa du. Horri ADSL modem-a gehitu behar zaio (26.680 pta.) eta alta eta instalazio-lanak (30.740 pta., baina azaroaren 31 bitartean dohain eskaintzen dute hau).

Esan bezala, zerbitzu hori oraingoz garestia suerta daiteke etxeko erabiltzaile gehienentzat, baina argi dago arrakasta ziurtatua duela. Argi ibili beraz! ☑

1.100 MHz-eko prozesadorea?

AMD eta Intel-ek 700 MHz-eko prozesadorea dela eta duten gudaz idazten ari nintzela, AMD berak 1,1 GHz-eko prozesadorea (1.100 MHz) urtarilaren 10ean salgai jarriko duela jakin nuen. Horretaz idazteko informazioa bilatzen hasi, eta Intel-ek 1.100 MHz-eko ‘Athlon Killer’ izeneko txip berria abenduan kaleratuko duela jakin nuen.



Horretaz guztiaz ez dago informazio ofizialik, oraingoz zurrumurruek besterik ez dira, baina ziur artikulua hau zuen eskutan izaterako 1.500 MHz-eko abiadurako txip-az arituko direla.

Abiaduraren guda honetan, ziur dudan gauza bakarra hasiera batean idatzi nuena da, hau da, AMDk 700 MHz-eko abiadura duen Athlon prozesadorea kaleratu duela eta Intel-ek urte-bukaerarako 733 MHz-eko Pentium IIIa iragarri duela.

Adituek diotenez, guda honek amaiera bat izango du, eta ez da izango batek edo besteak irabaziko dutelako, baizik eta une batetik aurrera fisikoki ezinezkoa izango delako abiadura azkarragoa lortzea. Ez dakit hori egia den, baina gu zorabiatzeko bidean goaz!!

Informazio gehiago: www.amd.com eta www.intel.com

73 Gb-eko disko gogorrak

Prozesadoreak geroz eta azkarragoak badira, disko gogorrak ere geroz eta handiagoak dira. Oraingoan IBM izan da diskoen marka hautsi duena, 73 Gb-eko ahalmena duen disko gogor bati esker. Ultrastar 72 ZX izeneko disko hau salgai egongo da datorren urteko lehen hiruhilabetetan.



Edozein sistema eragile erabili dezakeen txip-a

Transmeta enpresak patentatu berri omen duen txip berri hori, edozein PCren prozesadorea baino azkarragoa omen da eta, gainera, edozein sistema eragiletara molda omen daiteke.



Linus Torvalds.

Transmeta-koek diotenez, txip horren oinarri aldakorra software-emuladore indartsu batean datza. Horrela, txip-ak software bidez emulatuko lituzke prozesadore desberdinen funtzionamendua.

Linux sistema eragilearen sortzailea den Linus Torvalds-ek egiten du lan enpresa honetan eta, diotenez, prozesadore berri honen patentea 1996ko uztailean eskatu zuten eta orain dela gutxi lortu dute. Dena den, ez dute produktua inolako informaziorik eskaintzen, ezta noiz komertzializatuko duten ere. Informazio gehiago nahi baduzue, begiratu hemen: www.theregister.co.uk